



***RASFF TXOSTENA- ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK ELIKAGAIETAN***

2011ko 3gn LAUHILEKOA

elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2011ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1172 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUAK	ZENBATEKOAK
Mikotoxinak / biotoxinak	% 16
Kutsadura kimikoa	% 10
Kutsadura biologikoa	% 28
Metal astunak	% 7
Hondakinak	% 13
OGMak	% 1
Kutsadura fisikoa	% 1.5
Iruzurrak	% 7,5
Produktua gaizki kontrolatuta	% 16



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 83an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** eta **pikuak** kutsaduren % 66 eragin du (bakoitzak heren bat). Bestalde, kasu gehienetan (% 50) **Txinatik** zetozen.


Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 51 eragin ditu. Argi-argi, alerta gehien eragin dituztenak (% 76) **belar aromatikoak** izan dira, ia denak **asiarrak** izanik (%99). **Listeria monocytognes** bakterioa, bigarren postuan azaltzen da %22an. **Izokin ketua** da produktua kasuen %50an eta **Europa** jatorria haien %100an.

Azken hilabetetan, **produktuen egoera higieniko txarragatik** jakinarazpenen handitzen ari dira. **Arrain eta itsaskiak** kasuen %38a dira (jatorrizko herrialde nabariagorik ez da agertzen) eta **koltza**, %37an. Azken honen kasuan, **Ukrania** da jatorria %58,5 kasuetan.

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %80a dira eta medikamentuak %20a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %63an eta gehienak (%70) **asiarrak** dira.

Mikotoxinak/Biotoxinak	189	Aflatoxinak	157 (83%)	kakahueteak	50 (33 %)	Asia	24 (50%)
				pikuak	49 (33%)	Turkia	48 (98%)
Kutsadura biologikoa	326	Salmonella sp.	165 (51%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	158 (96%)	belar aromatikoak	121(76 %)	Asia	120(99%)
		Listeria monocytogenes	71 (22%)	izokin ketua	35 (50%)	Europa	35 (100%)
Egoera txarra	186			arrain eta itsaskiak	71 (38%)	Herri nabariagorik ez	
				koltza	70 (37%)	Ukrania	55 (79%)
Hondakinak	155	Pestizidak	31 (35%)	barazkiak	77(63%)	Asia	54(70%)
		Medikamentuak	30 (34%)	elikagai gehigarriak	12 (39%)	Txina	7 (58,5%)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 21 **Txinakoak** dira, jarraian **India** dugu: kasuen %18a. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Ukrania** izan da, % 14arekin eta bigarren **Frantzia** %11,5arekin. **Afrikaren** kasuan, **Marokok** jakinarazpenen %23 izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEB** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% 25a).

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

- **Anisakis simplex** parasitoak eragindako jakinarazpenen portzentaiaren **jeitsiera garrantzitsua**, %24,5etik % 8,5era pasatuz.
- **Salmonellak** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **igoera garrantzitsua**, 61tik 158ra pasatuz.
- **Kutsadura biologikoak** eragindako jakinarazpenen portzentaiaren **igoera**, %21etik % 28ra pasatuz, eta kasuak 191etik 326ra.
- **Aflatoxinek** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **igoera**, 117tik 157ra pasatuz.
- **Iruzurrek** eragindako jakinarazpenen portzentaiaren **jeitsiera**, %10,5etik %7,5era pasatuz.
- **Txina** jatorri bezela %28,5etik %21ra pasatu da

